



Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariaren 2024ko urriaren 29ko **EBAZPENA**, 2024-2025 ikasturterako Ikasiker lankidetza–beketan zuzendu beharreko eskaerak zerrendatzen dituena.

### GERTAKARIAK

**Lehena.-** Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2024ko ekainaren 25eko Aginduaren bidez Ikasiker lankidetza–beketarako deialdia egin zen, 2024-2025 ikasturterako (2024ko uztailaren 11ko EHAA, 136. zk.).

**Bigarrena.-** Aginduak 9. artikuluan xedatutakoa jarraituta, eskaerak aurkezteko epea 2024ko irailaren 16an bukatu zen.

**Hirugarrena.-** Aginduak 10.4 artikuluan xedatzen duenez, eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio zuzenketak egin ditzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluari jarraituta.

Ondorioz

### EBAZTEN DUT:

**Lehena.-** I. eranskinean aipatzen diren zuzendu beharreko eskaeren zerrenda argitara ematea.

**Bigarrena.-** Hamar eguneko zuzentze-epea ezartzea. Zuzentze-epea 2024ko urriaren 31tik azaroaren 14ra arte izango da, biak barne.

**Hirugarrena.-** Jakinaraztea, epe hori igaro eta gero, interesdunak ez baditu agiriak aurkezten, eskaerari uko egiten diola ulertuko dela.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data

SARA URIONABARRENETXEA ZABALANDIKOETXEA  
UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KORDINAZIOKO ZUZENDARIA